Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko urtarrilaren 21a, osteguna — 12 — Jueves, a 21 de enero de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORMAIZTEGIKO UDALA

*«Zubipe» kiroldegiko arautegi orokorraren behin betiko onarpena.*

Ormaiztegiko Udalak, 2015eko azaroaren 16an egindako ohiko bilkuran, «Zubipe» kiroldegiko arautegi orokorraren hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Kontuan izanik jendaurrean egon den epean ez dela erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, arautegi hau behin betiko izaeraz onartua geratzen da. Beraz, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituena, 70.2 artikuluak xedatzen duena betez, aipaturiko arautegi hau argitaratzen da.

*«Zubipe» kiroldegiko arautegi orokorra*

Xedea.

*1. artikulua.*

Arautegi honen helburua «Zubipe» Kiroldegiko inastalakuntzak eta gainerako zerbitzuak erabiliko dituztenen eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea da, beti ere, Eusko Legebiltzarreko Gorputza Kulturari eta Kirolari buruzko otsailaren 19ko 5/1988 Legean; Estatuko Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legean, eta gainerako xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera.

*2. artikulua.*

Ormaiztegiko Udalak, instalakuntzen erabilera egokia izan dadin, arautegi honetan ezarritakoa argitu, aldatu edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea gordetzen du.

Instalakuntzaren defizinioa.

*3. artikulua.*

«Zubipe» kiroldegiak herritarren zerbitzura dagoen herriondasun izaera izango du eta bereziki kirolaren sustapenera eta praktikara, heziketa fisikoaren, kirol eta kultur mailako ikuskizunen eta gizarte-ihardueren garapenera zuzenduta egongo da.

*4. artikulua.*

«Zubipe» kiroldegia orohar jende guztiarentzat izango da erabilgarri, eta bertako erabiltzaileak, norbanakoak, persona juridikoak eta izaera desberdineko entitateak izango dira, beti ere aurretik Ormaiztegiko Udalean beharrezkoa den eskaera egiten badute.

*5. artikulua.*

Ormaiztegiko Udalak urteroko beharrak eta eskaerak ikusita ezarriko duen ordutegiaren arabera egongo da jendearentzat zabalik «Zubipe» kiroldegia.

*6. artikulua.*

Ormaiztegiko Udalak, kiroldegiaren behin-behineko itxiera adostu dezake horretarako arrazoiak baldin badaude, jendeari neurriaren berri lehenbailehen emanez.

## AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

*Aprobación definitiva del Reglamento general del polideportivo «Zubipe».*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el 16 de noviembre de 2015, acordó aprobar inicialmente el Reglamento general del polideportivo «Zubipe».

Teniendo en cuenta que en el periodo de exposición pública no se han presentado reclamaciones ni alegaciones, el reglamento ha quedado aprobado definitivamente, por lo que en cumplimiento de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación íntegra del citado reglamento.

*Reglamento general del polideportivo «Zubipe»*

Objeto.

*Artículo 1.*

Es objeto de este reglamento regular los derechos, las obligaciones y las condiciones en que los usuarios y las usuarias podrán utilizar las instalaciones y demás servicios del polideportivo «Zubipe», de conformidad con lo dispuesto en la Ley 5/1988 del Parlamento Vasco, de 19 de febrero, de la cultura física y del Deporte; en la Ley 10/1990 de 15 de octubre, del Deporte del Estado y demás disposiciones aplicables.

*Artículo 2.*

El ayuntamiento de Ormaiztegi se reserva el derecho a dictar disposiciones o resoluciones para aclarar, modificar o desarrollar lo establecido en el presente Reglamento.

Definición de la instalación.

*Artículo 3.*

El polideportivo «Zubipe» tiene la consideración de bien de dominio público afecto al servicio público, y está destinado principalmente a la promoción y práctica deportiva y al desarrollo de la educación física, así como al desarrollo de espectáculos deportivos, culturales o actividades sociales.

*Artículo 4.*

El polideportivo «Zubipe» está abierto al público en general y, en consecuencia, podrán ser usuarios del mismo las personas individuales, las personas jurídicas y las entidades que previamente hayan hecho la solicitud pertinente al Ayuntamiento de Ormaiztegi.

*Artículo 5.*

El polideportivo «Zubipe» permanecerá abierto al público en el horario que cada año establezca el Ayuntamiento de Ormaiztegi de conformidad con las necesidades y demandas que se aprecien.

*Artículo 6.*

El Ayuntamiento de Ormaiztegi podrá acordar el cierre temporal del polideportivo cuando se produzcan causas que lo justifiquen haciendo público el alcance de la medida con la máxima antelación posible.

EK\CV GAO-I-2016-00236

*7. artikulua.*

Kiroldegiaren dotazio berezi bakoitzean, berari dagozkion kirolak eta fisiko eta kirol mailako, edo beste izaera bateko iharduerak burutuko dira. Beste mota bateko iharduerak ere burutu ahal izango dira, teknikoki posible bada behintzat, eta horretarako Ormaiztegiko Udaleko baimena beharko du.

## 2. ATALBURUA

## LEHENTASUNEZKO ERABILTZAILE ETA ERABILPENAK

*8. artikulua.*

«Zubipe» kiroldegia, herritarrek beren aisialdian iharduera fisikoa eta kirol mailakoa burutu dezaten erabiliko da, eta baita eskolako iharduera fisikoa burutzeko, eta kirol-errendimendua lortzea xedea duten beste kirol-iharduerak burutzeko.

Aurrekoaren kalterik gabe, kirol eta kultur mailako beste ikuskizunetarako edo ihardueretarako ere erabil daiteke, beti ere, hauek dotazio desberdinen ezaugarri teknikoekin bateragarri izan beharko dutelarik.

Lehentasunezko erabilpenen artean jasotzen da, ikasleek jolas garaia egin dezaten, San Andres Herri Eskolak egiten duen frontoiaren eta bere dotazioen erabilpena.

*9. artikulua.*

Lehentasunezko erabiltzaile izango dira ondorengo pertsona edo erakundeak:

— San Andres herri Eskolako soinketa irakasleak, instalakuntza eskola-orduetan erabiliko dutenak.

— Jolasgaraietan ikasleak zaintzeko ardura duten San Andres herri Eskolako irakasleak.

— Eskola Kirolaren arduradun eta entrenatzaile direnak.

— OKE Klubeko euskubaloi talde desberdinetako entrenatzaileak.

— Aisialdirako iharduera fisiko desberdinetako klaseak emateko Udal instalakuntza erabiltzen duten petsonak.

— Aurreko ihardueratan parte hartzen duten ikasle eta jokalari guztiak.

— Udaletxeak izendatutako edozein persona, talde edo erakunde.

Artikulu honetan aipatzen ez diren gainontzeko pertsona edo taldeak aldizkako erabiltzaile izango dira, eta ondorioz lehentasunik gabeko erabiltzaile gisa hartuak.

## 3. ATALBURUA

## «ZUBIPE» KIROLDEGIAREN KUDEAKETA, JARRAIPENA ETA KONTROLA

*10. artikulua.*

Ormaiztegiko Udala izango da kiroldegiaren administrazio eta kudeaketaren arduradun bakarra, eta kiroldegiaren erabilpen ona egin dadin, zerbitzuak behar bezala eman daitezen eta erreglamendu honetan ezarritako baldintzak bete daitezen ikuskatuko du.

Kudeaketa egokia eta eraginkorra izan dadin, erabiltzaile guztiek, aldizkako zein lehentasunezkoek, dagokion erabilera eskaera egin beharko dute Udalak ezarritako denbora eta forman.

Udaletxea izango da, behin eskaera guztiak aztertuta, interes orokorrei begira egokienak ulertzen dituen erabilera ordutegiak zehaztuko dituena.

*Artículo 7.*

En cada dotación específica del polideportivo podrán practicarse los deportes y actividades físico-deportivas, o de otra naturaleza, a los que esté destinada la misma. También podrán practicarse otro tipo de actividades siempre que técnicamente sea posible siendo necesaria para ello, la correspondiente y previa autorización del Ayuntamiento de Ormaiztegi.

## CAPÍTULO 2

## UTILIZACIONES Y USUARIOS PREFERENTES

*Artículo 8.*

El polideportivo «Zubipe» se destina, preferentemente a la práctica de la actividad físico-deportiva de ocio, a la actividad física escolar y a la actividad deportiva que tiene por objeto la consecución de rendimientos deportivos.

Sin menoscabo de lo anterior también puede destinarse al desarrollo de espectáculos y eventos deportivos y culturales, y cualquier otro tipo de actividades compatibles con las características técnicas de las diferentes dotaciones.

Dentro de los usos preferentes se contempla la utilización que la Ikastola San Andrés Herri Eskola hace del frontón y sus dotaciones anexas como lugar de recreo de sus alumnos.

*Artículo 9.*

Se reconocen como usuarios preferentes habituales las siguientes personas y/o entidades:

— Los profesores de educación física de la San Andres Herri Eskola, que utilizarán la instalación dentro del horario lectivo de la misma.

— Los profesores de la San Andres Herri Eskola responsables de la guardia y custodia de los alumnos en el tiempo de recreo.

— Los responsables del deporte extraescolar y los entrenadores asignados para el desarrollo de la actividad.

— Los entrenadores de balonmano de los distintos equipos del Club OKE.

— Las personas que utilizan las instalaciones municipales para impartir clases de distintas actividades físicas de ocio.

— Todos los alumnos y jugadores que toman parte en las actividades anteriores.

— Cualquier persona, grupo o entidad que designe el Ayuntamiento.

Todas aquellas personas o entidades no contempladas en el presente artículo serán consideradas usuarios ocasionales y por lo tanto no preferentes.

## CAPÍTULO 3

## GESTIÓN, SEGUIMIENTO Y CONTROL DEL POLIDEPORTIVO «ZUBIPE»

*Artículo 10.*

Será el Ayuntamiento de Ormaiztegi el único responsable de la administración y gestión del polideportivo, y vigilará que se realice una buena administración y utilización del polideportivo, que se preste el servicio adecuadamente y que se cumplan las condiciones establecidas en este reglamento.

Con objeto de gestionar de manera adecuada y eficiente la instalación, todos los usuarios, sean preferentes u ocasionales, deberán hacer la solicitud de uso pertinente en plazo y forma determinados por el Ayuntamiento.

Será el Ayuntamiento quien una vez analizadas todas y cada una de las solicitudes establezca los horarios de uso que considere más adecuados a los intereses generales.

EK\CV GAO-I-2016-00236

4. ATALBURUA

ERRESERBA ARAU OROKORRAK

*11. artikulua.*

Lehentasunezko erabiltzaileek instalakuntza erabiltzeko eskaera gutxienez denboraldia edo ikasturtea hasi baino 2 hilabete lehenago egin beharko dute, eta ahal izango balitz ekainean. Eskaera hau Udaletxeko bulegoetan egingo da bertan emango den inprimakian eta honi atxikiko zaio instalakuntzak erabiltzeko egutegi eta ordutegi proposamena.

Eskubaloi taldeen kasuan, beraiek jaso bezain pronto jakinarazi beharko diote Udalari konpetizio egutegia.

Instalakuntza kirola egiteko alokatu nahi duten aldizkako erabiltzaileek, eskaera egin beharko dute dagokion inprimakia betez; hau jubilatuen etxeko tabernan egongo da eskura, eta hau itxita dagoenean Udaletxeko bulegoetan.

Eskaera egiteko momentuan udal ordenantza fiskalek zehazten duten kantitatea ordaindu beharko da, eta eskatzailearen nortasun agiria utzi beharko da deposito moduan, giltzak itzultzeko momentuan eskuratuko direlarik.

Beste edozein helbururekin instalazioen erabilera puntuala eskatzen duten eskatzaileek, dagokion eskaera bete beharko dute Udaletxean hilabeteko lehentasunaz.

Beste edozein helbururekin instalazioen ohizko erabilera eskatzen duten eskatzaileek, dagokion eskaera bete beharko dute Udaletxean lehentasunezko ohizko eskatzaileen atalean zehazten den modu, denbora eta bideari jarraituz.

5. ATALBURUA

INSTALAKUNTZEN ERABILERA

*12. artilkulua.*

Debekaturik geratzen da:

12.1. Beste erabiltzaileak arriskuan jarri edota gogaitzen dituzten ekintzak egin.

12.2. Zuzendutako iharduerak eragotzi, instalazioetarako kalte materiala sortu edo garbitasun arazoak sortzen dituzten ekintzak burutu.

12.3. Sustantzia arriskutsuak, sukoiak edo kaltegarriak sartu instalazioetan.

12.4. Espazio guztietan, kirol pistan eta harmailetan jatea, kirolariek entrenamenduetan edota konpetizioan erabiltzen dituzten edariak salbu, ura edo edari isotonikoak kasu.

12.5. Argazkiak egin edo bideoak grabatu gainontzeko erabiltzaileen baimena izan gabe.

12.6. Eraikuntza barruan txirrinduak, patineteak, monopatinak, trizikloak eta orokorrean beste erabiltzaileak kaltetu edo zorua hondatu dezakeen edozein elementu.

12.7. Dotazio desberdinetan praktikatzeko egokiak ez diren ekintza edo kirol mota praktikatu, espresuki emandako baimenik izan ezean.

12.8. Aldez aurretik erreserban hartutako espazioak hirugarren pertsonei utzi edo alokatu.

12.9. Instalazioarenak diren elementu edo ekipamenduak erabili, argiteria edo berogailua kasu, Udalak espresuki baimendu ez badu.

12.10. Udalak mantenu lanetarako eta garbiketarako kontratatuta dituen langileei lanak egiteko eskatu edo kexuak azaldu.

CAPÍTULO 4

NORMAS GENERALES DE RESERVA

*Artículo 11.*

Los usuarios preferentes deberán hacer la solicitud de uso de la instalación con una anterioridad mínima de 2 meses antes del inicio de la temporada o curso, y preferentemente en el mes de junio. Esta solicitud se entregará en el formulario que el propio Ayuntamiento facilitará al efecto en sus oficinas, e incluirá una propuesta detallada de calendario y horarios de uso de las instalaciones.

En el caso de los equipos de balonmano, deberán informar del calendario de competición en cuanto les sea comunicado.

Los usuarios ocasionales que alquilen las instalaciones para la práctica deportiva, deberán hacer la solicitud cumplimentando el correspondiente impreso que estará disponible habitualmente en el bar del hogar del jubilado, y cuando este permanezca cerrado en las oficinas del Ayuntamiento.

En el momento de la solicitud habrá que abonar la cantidad estipulada para tal fin en las ordenanzas fiscales municipales, y dejar en depósito el documento de identidad del solicitante, que será devuelto en el momento de la entrega de las llaves.

Los usuarios que soliciten el uso puntual de las instalaciones para cualquier otro fin, deberán cursar la solicitud correspondiente en el Ayuntamiento con una antelación mínima de un mes.

Los usuarios que soliciten el uso regular de las instalaciones para cualquier otro fin, deberán cursar la solicitud correspondiente en el Ayuntamiento en el modo, tiempo y cauce ya descritos en el apartado referente a solicitudes de usuarios preferentes habituales.

CAPÍTULO 5

USOS DE LAS INSTALACIONES

*Artículo 12.*

Queda prohibido:

12.1. Realizar actos que perturben, molesten o pongan en peligro a otros usuarios.

12.2. Realizar actos que dificulten, obstaculicen o impidan el desarrollo de actividades dirigidas, supongan daño material para las instalaciones o afecten a la higiene general.

12.3. Introducir, sustancias inflamables, peligrosas o nocivas en las distintas instalaciones.

12.4. Comer en todos los espacios, pista deportiva y gradas salvo bebidas utilizadas por los deportistas en la competición o entrenamiento, como aguas y bebidas isotónicas.

12.5. Tomar fotografías o secuencias videográficas de otros usuarios sin su consentimiento expreso.

12.6. Utilizar dentro de los recintos bicicletas, patines, monopatines, triciclos, y en general cualquier elemento que moleste u obstaculice a los demás usuarios y que dañe el pavimento.

12.7. Practicar en los espacios deportivos actividades o modalidades deportivas diferentes al uso concebido, salvo autorización expresa.

12.8. Ceder o alquilar a terceros los espacios deportivos reservados.

12.9. Manipular elementos y equipamientos propios de la instalación, tales como calefacción o luces, salvo con permiso expreso del Ayuntamiento.

12.10. Solicitar trabajos o formular quejas a los trabajadores contratados por el Ayuntamiento para el mantenimiento y la limpieza del edificio.

EK\CV GAO-I-2016-00236

6. ATALBURUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

*13. artikulua.*

Instalakuntzen erabiltzaileek eskubidea dute:

13.1. Bere segurtasuna eta duintasuna errespetatua izateko.

13.2. Adostutako ordutegian instalakuntzak erabiltzeko, garbitasun eta segurtasun berme handienarekin, eta elbarritasunen bat duten pertsonentzat dagozkion egokitzapenak edukiz.

13.3. Zerbitzuak ematen dituen pertsonen aldetik adeitasunez eta gizabidez tratatuak izateko.

13.4. Zerbitzu eta gune osagarriak erabiltzeko, aldagelak, komunak.

13.5. Instalakuntzak, altzariak eta kirol materiala erabiltzeko dagokion bezala aurkitzeko.

13.6. Deritzoten eskaera, kexu edo erreklamazioak aurkezteko, beti ere idatziz eta Hirigintza eta Zerbitzuetako zinegotziari bideratutako eskabidea eginaz Ormaiztegiko Udaletxeko bulegoetan.

13.7. Aurkeztutako eskaera, kexu edo iradokizunei ahalik eta azkarren erantzuna jasotzeko.

*14. artikulua.*

Erabiltzaileen betebeharrak dira:

14.1. Instalazioak behar bezala erabili, tratu ona emanaz eta zainduz, zikindu edo haien kontserbazioan kaltea sor dezaketen iharduerak ekidituz.

14.2. Gainontzeko erabiltzaile, langile eta ikusleak dagokion errespetuz tratatu, bizikidetza ahalbidetuko duen jarrera mantenduz eta kirola egiteko egokia den jantziak erabiliz.

14.3. Instalazio bakoitzaren arautegia bete.

14.4. Bertan jarritako zaborrontziak erabili instalazioen mantenimenduan lagunduz eta ezarritako garbitasun eta higiene arauei erreparatuz.

14.5. Instalazio bakoitzak dagokion kirol iharduera praktikatzeko egokia den janzkera erabili.

14.6. Instalazioen funtzionamendu arauak eta Ormaiztegiko Udalak ezarri ditzakeen arau edo iradokizunak errespetatu.

14.7. Dagokion Udal Ordenantzak instalazio eta zerbitzuen erabilerarako ezartzen dituen erabilerarako salneurriak ordaindu.

14.8. Edozein instalazio edo dotazioren itxiera edo ordutegi aldaketa onartu, berrikuntza, konponketa edo garbiketak medio, edo ezhoizko ihardueraren bat burutu behar izateagatik; baita oporraldietan ere.

14.9. Erabiltzaileak jaso ditzakeen edo berak beste erabiltzaile bati sor ditzaiokeen kalteei erantzuna eman. Instalazioetan kalte materialak sortzen dituen erabiltzailea arduradun zuzena izango da, konponketak sortuko dituen gastuei aurre egin behar dielarik.

14.10. Instalazioak erabili aurretik zeuden egoera berberean utzi, eta instalazioetan edo erabilitako gailuetan kalteren bat antzemanez gero, Udalari jakinarzi behar dio lehen bait lehen.

CAPÍTULO 6

DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LOS USUARIOS

*Artículo 13.*

Los usuarios de las instalaciones deportivas tendrán derecho a:

13.1. Que se respete su integridad y dignidad personal.

13.2. Utilizar las instalaciones deportivas autorizadas en el horario concertado, con las máximas garantías de higiene y seguridad, y adaptadas a personas con disminuciones.

13.3. Ser tratados con educación y amabilidad por todo el personal que presta los servicios.

13.4. Hacer uso de los servicios y espacios complementarios como vestuarios, aseos, etc.

13.5. Encontrar las instalaciones, el mobiliario y el material deportivo en perfectas condiciones de uso.

13.6. Presentar las solicitudes, quejas, sugerencias o reclamaciones que estimen convenientes por escrito a través de instancia dirigida al Concejal de Urbanismo y Servicios en las oficinas del Ayuntamiento de Ormaiztegi.

13.7. Recibir respuesta a sus solicitudes, quejas, sugerencias o reclamaciones en el plazo de tiempo más breve posible.

*Artículo 14.*

Son obligaciones de los usuarios:

14.1. Utilizar correctamente las instalaciones y dependencias de las mismas con buen trato y cuidado correcto, evitando toda clase de actos que pudieran ensuciar o causar daño en la conservación de las mismas.

14.2. Guardar el debido respeto a los demás usuarios, personal y público, manteniendo la compostura necesaria para la debida convivencia, y efectuar la práctica deportiva con la vestimenta y el calzado adecuado.

14.3. Cumplir con la normativa específica de cada instalación.

14.4. Hacer uso de las papeleras habilitadas para ello colaborando en lo posible en el cuidado de las instalaciones, observando las normas de limpieza e higiene establecidas.

14.5. Hacer uso de cualquiera de las instalaciones con la adecuada indumentaria acorde a las diferentes modalidades deportivas.

14.6. Respetar los horarios de funcionamiento de las instalaciones, y cuantas normas e instrucciones dicte el Ayuntamiento de Ormaiztegi.

14.7. Abonar los precios públicos de las instalaciones y servicios de conformidad con la oportuna Ordenanza Municipal.

14.8. Aceptar el cierre temporal o en su defecto la modificación del horario de funcionamiento de cualquier instalación o dependencia, por limpieza, reparación y desarrollo de alguna actividad extraordinaria, así como en periodos festivos.

14.9. Responder de los daños personales o materiales que pudiera producirse el propio usuario, o causar a otras personas dentro de la instalación. Cualquier usuario que ocasione desperfectos materiales en las instalaciones será directamente responsable, por tanto se ha de hacer cargo de los gastos que origine el desperfecto ocasionado.

14.10. Dejar las instalaciones en idéntico estado al que se encontraban antes de su utilización y en caso de detectar algún desperfecto en los aparatos o alguna circunstancia anómala en las instalaciones deberá ponerlo inmediatamente en conocimiento del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2016-00236

14.11. Uneoro polikiroldegiko instalazioak, baimendutako pertsonak eta gainontzeko erabiltzaileak errespetatu. Arau hau betetzen ez duen erabiltzaileari polikiroldegitik irtenarazi ahal zaio.

7. ATALBURUA

EZOHIZKO ERABILERAK

*15. artikulua.*

Behin ikasturtea hasita eta hauekin eskola kiroleko entrenamenduak, hauek irauten duten bitartean frontoia zabalik izango da. Honen helburua Ikastolako haurrek irten ondoren babestutako jolasleku bat izan dezaten da.

Erabilera egokia egiteko asmoz, ondorengo moduan arautzen da:

— Eraikuntzara sarrera irekita egongo da, beti ere entrenamenduen ohizko garapena eragozten ez bada. Horrela izango balitz, eskola kiroleko koordinatzaileak Udalari isteko eskaera luza diezaioke.

— Jolasteko eremua frontoiaren kantxa izango da, eta inolaz ere ezingo da grada erabili helburu horrekin.

— Grada irekita egongo da entrenamenduak edo jolasak ikusi nahi dituzten persona helduentzat, eta hauekin egon daitezkeen umeentzat.

— Erabilera hau arautegi honetako gainontzeko artikuluek arautzen dutenari loturik egongo da.

*16. artikulua.*

Udal igerilekuak zabalik dauden garaian, dagokion sarrera edo abonoa ordaindu duten erabiltzaileek eskubidea izango dute polikiroldegiko ondorengo instalazioak erabiltzeko:

— Komunak eta aldagelak.

— Frontoiaren kantxa, kirola egin edo jolasteko.

Frontoiaren kantxa erabil daiteke bakarrik, eta sekula ere ezingo da gradatan egon edo jolastu.

Gradak itxita egongo dira edozein erabiltzailerentzat, salbuespenik gabe.

Erabilera hau arautegi honetako gainontzeko artikuluek arautzen dutenari loturik egongo da.

*17. artikulua.*

Udaletxeak herriko hainbat musika talde eta kultur erakunde (Bertso Eskola) baimentzen ditu lokal bat erabiltzeko entsegutarako.

Erabilera honek ere arautegi honetan zehazten diren erabilera eta erreserba arauak errespetatu behar ditu, eta erabiltzaileek gainontzekoen betebehar eta eskubideak izango dituzte.

Ormaiztegiko Udala izango da lokalaren administrazio eta kudeaketaren arduradun bakarra, eta honen erabilpen ona egin dadin, eta erreglamendu honetan ezarritako baldintzak bete daitezen ikuskatuko du.

8. ATALBURUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

*18. artikulua.*

Arau-hausteak honako moduan definituko dira:

1. Arau-hauste oso larriak:

a) Ekipamenduen, instalazioen, azpiegituren eta instalazioaren gainontzeko elementuen hondatze larria.

14.11. Conservar en todo momento el debido respeto a las instalaciones, al personal autorizado y a los restantes usuarios del Polideportivo. El incumplimiento de esta norma podrá dar lugar a la expulsión del infractor del recinto polideportivo.

CAPÍTULO 7

USOS EXTRAORDINARIOS

*Artículo 15.*

Una vez iniciado el curso escolar y los entrenamientos de deporte escolar, el frontón permanecerá abierto mientras se desarrollan los mismos. El objetivo de esta apertura no es otro que el de ofrecer a los niños y niñas un lugar abrigado donde poder jugar después de la salida de la Ikastola.

Para el correcto funcionamiento de este espacio de tiempo se articulan las siguientes normas:

— La entrada al recinto estará permitida siempre y cuando no se entorpezca el normal desarrollo de los entrenamientos. Si así ocurriese el coordinador del deporte escolar podrá solicitar al Ayuntamiento el cierre de la instalación.

— El área de juego queda restringida a la cancha del frontón, y en ningún caso se podrá acceder a las gradas con tal fin.

— Las gradas permanecerán abiertas únicamente para las personas adultas y niños acompañados que quieran ver el desarrollo de los entrenamientos y juegos.

Este uso queda supeditado al resto de artículos del presente reglamento.

*Artículo 16.*

En el periodo de apertura de las piscinas municipales, los usuarios de las mismas que hayan abonado la entrada o bono correspondiente, tendrán derecho a la utilización de las siguientes instalaciones del polideportivo:

— Baños y vestuarios.

— Cancha del frontón para jugar y practicar deporte.

El área de uso queda restringida a la cancha del frontón, y en ningún caso se podrá acceder a las gradas.

Las gradas permanecerán cerradas a todos los usuarios sin excepción.

Este uso queda supeditado al resto de artículos del presente reglamento.

*Artículo 17.*

El Ayuntamiento cede un local a distintos grupos de música y organizaciones culturales del municipio (Bertso Eskola) para sus ensayos y clases.

Este uso queda supeditado a las normas generales de reserva y uso de las instalaciones, y sus usuarios gozarán de los mismos derechos y deberes que el resto de los usuarios.

Será el Ayuntamiento de Ormaiztegi el único responsable de la administración y gestión del local, y vigilará que se realice una buena administración y utilización del mismo, y que se cumplan las condiciones establecidas en este reglamento.

CAPÍTULO 8

RÉGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 18.*

Las faltas quedarán tipificadas del siguiente modo:

1. Faltas muy graves:

a) El deterioro grave y relevante de equipamientos, infraestructuras, instalaciones, elementos o material de las instalaciones.

EK\CV GAO-I-2016-00236

b) Instalazioaren arduradun edo gainontzeko erabiltzaileen aurkako eraso fisikoa.

c) Elkarbizitzaren asaldatze nabarmena ekarriko duen instalazioaren, materialaren edota kirol ekipamenduen erabilera desegokia.

d) Udalaren baimenik gabe instalazioan sartu edo erabili, Ordenantza honetako 4. Atalburuko Erreserba Arau Orokorretan zehaztuten direnak errespetatu gabe.

e) Beste erabiltzaileei instalaziora sarrera eragotzi.

2. Arau-hauste larriak:

a) Beste erabiltzaileak arriskuan jarri edota gogaitzen dituzten ekintzak egin.

b) Zuzendutako iharduerak eragotzi, instalazioetarako kalte materiala sortu edo garbitasun arazoak sortzen dituzten ekintzak burutu.

c) Argazkiak egin edo bideoak grabatu gainontzeko erabiltzaileen baimena izan gabe.

d) Dotazio desberdinetan praktikatzeko egokiak ez diren ekintza edo kirol mota praktikatu, espresuki emandako baimenik izan ezean.

e) Aldez aurretik erreserban hartutako espazioak hirugarren pertsonei utzi edo alokatu.

f) Instalazioarenak diren elementu edo ekipamenduak erabili, argiteria edo berogailua kasu, Udalak espresuki baimendu ez badu.

3. Arau-hauste arinak:

a) Eraikuntza barruan txirrinduak, patineteak, monopatinak, trizikloak eta orokorrean beste erabiltzaileak kaltetu edo zorua hondatu dezakeen edozein elementu.

b) Espazio guztietan, kirol pistan eta harmailetan jatea, kirolariek entrenamenduetan edota konpetizioan erabiltzen dituzten edariak salbu, ura edo edari isotonikoak kasu.

c) Arautegi honetan jasotako beste edozein betebehar ez betetzea, baldin eta arau hauste oso larria edo larria eragiten ez badu.

*19. artikulua.*

Isunak:

Arau-hausteek honako isunak ezartzea eragingo du:

Arau-hauste oso larriak: 3000 €-ra arte.

Arau-hauste larriak: 1500 €-ra arte.

Arau-hauste arinak:700 €-ra arte.

Isunen graduazioa eragindako kalteak, kaltea eragiteko asmoa eta maiztasunaren arabera egingo da.

Arautegi honetan zehaztutakoaren arabera jar daitezkeen isunez gain, arau-hausleak eragindako kalteak konpondu egin beharko ditu bere egoeran jartzeko, eta dagokion kalte-ordainketa ordaindu beharko du.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost (15) egunera sartuko da indarrean.

Aipatutako egunetik aurrera, indarrik gabe geratuko da honen edukiaren kontra egiten duen udal-xedapen oro.

Ormaiztegi, 2016ko urtarrilaren 11.—Jon Enrique Galarza, alkatea. (236)

b) La agresión física a otros usuarios o al personal responsable de la instalación.

c) El uso inadecuado de las instalaciones, del material o del equipamiento deportivo que suponga una perturbación relevante de la convivencia.

d) Acceso y utilización de las instalaciones sin el permiso expreso del Ayuntamiento, regulado en el Capítulo 4 referente a Normas Generales de Reserva.

e) Impedir el uso de la instalación o cualquiera de los elementos a otros usuarios.

2. Faltas graves:

a) Realizar actos que perturben, molesten o pongan en peligro a otros usuarios.

b) Realizar actos que dificulten, obstaculicen o impidan el desarrollo de actividades dirigidas, supongan daño material para las instalaciones o afecten a la higiene general.

c) Tomar fotografías o secuencias videográficas de otros usuarios sin su consentimiento expreso.

d) Practicar en los espacios deportivos actividades o modalidades deportivas diferentes al uso concebido, salvo autorización expresa.

e) Ceder o alquilar a terceros los espacios deportivos reservados.

f) Manipular elementos y equipamientos propios de la instalación, tales como calefacción o luces, salvo con permiso expreso del Ayuntamiento.

3. Faltas leves.

a) Utilizar dentro de los recintos bicicletas, patines, monopatines, triciclos, y en general cualquier elemento que moleste u obstaculice a los demás usuarios y que dañe el pavimento.

b) Comer en todos los espacios, pista deportiva y gradas salvo bebidas utilizadas por los deportistas en la competición o entrenamiento, como aguas y bebidas isotónicas.

c) Cualquier otro incumplimiento de los deberes u obligaciones de los usuarios contemplados en el presente Reglamento, y que no de lugar a faltas muy graves o graves.

*Artículo 19.*

Sanciones:

La comisión de infracciones dará lugar a la imposición de las siguientes sanciones:

Infracciones muy graves: hasta 3000 €.

Infracciones graves: hasta 1500 €.

Infracciones leves: hasta 700 €.

La graduación de las sanciones se realizará teniendo en cuenta la intencionalidad, la naturaleza de los perjuicios causados y la reincidencia.

Con independencia de las sanciones que puedan imponerse por los hechos tipificados en este Reglamento, el infractor está obligado a la restitución y reposición de los bienes a su estado anterior, con la indemnización de los daños y perjuicios causados.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente ordenanza entrará en vigor a los quince (15) días de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

A partir de la citada fecha quedarán derogadas cuantas otras disposiciones municipales se opongan al contenido de ésta.

Ormaiztegi, a 11 de enero de 2016.—El alcalde, Jon Enrique Galarza. (236)

EK\CV GAO-I-2016-00236